

Erdi-aroko jauntxoak Bermeo'n

Olazar'tar Martin

BERMEO
5, 1985
287-295 or.

Erdi-aroko jauntxoak Bermeo 'n

Olazar'tar Martin

Giroa

Euskalerrian Erdi-Aroko giroa zelako izan zan ulertu gura dauanak, jautxuen kondairea ez dau baztertu bear. Ulertu-eziña da gure kondairea aldi orretan jauntxuen jakingarriak kontuan artu ezik.

Baiña zer ziran jauntxuak?

Izatez sendi-buruak ziran, erderaz «Parientes Mayores» esaten dautse eta ortik euskeraz «Aide Nagusiak», baiña euskeratze au ez dogu uste egokiro egiña danik, «pariente» itz orrek euskerazko «aide» itzagaz zer-ikusi gitxi daualako.

Jauntxu edo sendiburu onein artean lakarte aundi bi sortu ziran, Oiñaztarrena bata eta Ganboatarrena bestea eta alkarte bi onein artean gorroto aundia egoan eta euren artean sarritan izan ziran gudaketak, asarreak, ilketak eta olakoak. «Bando» edo alderdi bi oneik odolez gorritu eben Euskalerriko lurra. Naparroa'ko euskaldunen artean be antzeko talde bi sortu ziran: Agramontesak eta Beaumontesak. Onein artean be jokabidea antzekoa izan zan.

Alderdi oneik eragin aundia izan eben Euskalerrri osoan, arizpeetan egiten ziran batzarretan naiz errien arteko alkar-bizitzan.

Baiña jauntxu onein burrukak Euskalerrriaren mugetatik kanpora be zeregin aundiak izaten ebezan, naiz Erregeren batek euren laguntza eskatzen ebanean (esaterako Errege Katolikuak Beaumontesen laguntzaz, Lerin'ko Kondea buru zala arrapatu eban Naparroa) naiz kanpo-errietako jauntxoai senidetasunagaitik edo adiskidetasunagaitik laguntza emotera joaten ziran.

Jauntxuen jokabidea, gogorkerizko bidea izanez gaiñera, beste era askotara izan jakon kaltegarri Euskalerrriari: Beti Erregeen mesede-billa ibilli-beararak auzoko arazoai begira jarri ginduzan, jauntxu bakoitza bere izen ona zaindu-beararak zenbatu eziñeko asperkunde edo bengantzetara eroan ginduzan, jauntxuen diru-zalekeriak, zerga-bidez, erregeagaz bat eginda erritarrak txikrotu ebazan eta aurrerapenerako ain kaltegarri dan guda ta gorroto-giroa sortu eben. Eta zenbat eriotza pozoi-bidez gorroto orrek eraginda!

Kondaira-liburu bat

Erdi-Aroko Jauntxuen bizitza eta jakingarri zeatzak dakarskuzan liburu eder bat Lope Garcia de Salazar'en «Las Bienandanzas e Fortunas» dogu. Ez

da irakurteko erreza liburu au, baiña bai jakingarrien iturri egokia.

Liburuaren idazlea Elkarterrikoa zan eta jauntxuen sendi baten oso-osoan sartua. Orregaitik bere jakingarriak bizi-bizikiak dira eta jauntxuen izaerea soñean daroa. Muñatones Torrean jaio zan 1.399n.urtean eta bere semeak nagutzako eskubideak gogorkeriz kendu ondoren etxean bertan espetxeratu eban eta antxe il be egin zan 1.476n.urtean. Pozoituta il ete zan esaten da.

«Las Bienandanzas e fortunas» 25 liburu dira izatezm baiña lenengo 12'etan Euskalerritik kanpoko kondairea azaltzen da ludigintzatik asi eta turkiataren aldira arte. Urrengo liburuetan España'ren kondairea agertzen da, bere aldira artekoa dana. Eta azkenengo sei liburuak 20n.'etik 25n.'era, biak barru dirala, Euskalerriko jauntxuen kondairea dira. Oneik dira guri dagokiguzanak eta aztertu doguzanak.

Jauntxuak Bermeo'n

Amalagarren gizaldiaren azkenetarako Bermeo bere kondaira guztiko egunik aundienetara elduta egoan, bere Urre-Aldian esan genke. Aldi orretan ondo ezarria izango eban «Bizkai-Buru» izena, naizta izen ori amabstgarren gizaldiaren azkenetan Errege Katolikuak agertua izan.

Ori orrelan izanik, zalantza barik, erri onetan burruka ta gorabera aundiak izango ebezan jauntxuak. Bear bada Lope Garcia de Salazar'ek agertzen dauza baiño aundiagoak, baiña idaz-lan apal onetan idazle onek dakazanak baiño besterik ez dogu agertuko.

Don Nuño

Bizkaiko XIX jauna izan zan Don Nuño, Bermeo'n il zan; eta bere aita il eta urteagarrenean il zan iru urteko ume txikia eta Bermeo'n dago illobirata. (18n.orrialdean)¹

Don Juan errege-semea

Don Tello il zanean Don Juan bere seme zarrena sartu zan Gaztela'tik Bizkai'ra eta Bizkai'tar guztiak jauntzat artu eben, eskubide au erregiña-amagandik artuta eukalako eta au Lara ta Bizkai'ko Jaunen legezko illobea zan. Orrelan artu eban etorpidez Lara ta Bizkai'ko jauntza eta errege-jaun-

(1) *E don Nuño, que fue el XIX Señor de Viscaya, e morio en Vermeo un año despues que su padre, que era moco pequeño de tres años e yase en Vermeo sepultado. (Pag. 18).*

tzara sartu ebazan eta zin egin eban Gernika Zarreko Anda Mari'n eta Bermeo'ko Eupeme Deuna'n. (19n. orrialdean).²

Bermeo'ko leiñargiak

Bermeo urian antxiña laiñargi bi egozan, Asoaga'tarrena bata eta Apioza'tarrena bestea; nor indartsuagoa zan jakiteko gogoz alkarren a-urka ibiltzen ziran... Aldien joan-etorrian Asoago'tarren sendia iru zati egin zan eta orrelan jauntxuen artean iru leiñargi sortu ziran: Almendurua, Ariltza ta Arostegi eta zatitze onegaz Apioza'tarrak, jauna lagun ebela, lege bereziak lortu ebezan. (81n.orrialdean).³

Ariltza

Madariaga'tarrak Busturi'ra joan ziran bizitera eta sendi onetatik urten zan ospetsuena Madariaga'tar Ramiro izan zan, Bizkai'ko jaunaren aurrean izen aundiko gizona, burrkalari ona zalako eta Monastegi ta lurralde asko irabazi ebalako eta Aragoi'ko Don Pedro Erregearen aldian il zan Monbriedo

briedo'n eta Madariaga'tar Ramino itz eban bere ondasun guztien oiñordeko eta onek Ramino beronen semea itzi eban, izen onetako irugarrena, eta au Bermeo'n ezkondu zan Garzia de Ailtza'tar Martin'en alabeagaz eta Ramiro laugarrena izan zan onek itzi eban semea. (79n.orrialdean).⁴

Juan Santxes

Lekeitio'n ospetsuena Adan de Yartza zarra izan zan, Bizkai'ko Jaunaren menpekoa eta Lekeitio uri aretako nagusia. Adan semea izan eban baiña gazte il zan burrukaldi baten zaurituta, eta onen sema Garzia de Yartza'tar

(2) Muerto el Conde don Tello en el año del Señor de Ucccxj años, entro el Ynfante don Juan, primogenito de Castilla en Viscaya, e fue Receuido por Señor della por todos los viscaynos, porque eredo por la Reyna madre que era njeta legitima de los Señores de Lara e de Viscaya, e asy mjsmo eredo a lara e a Viscaya, e apropiola para la su corona Real, e juro en Santa Maria de Guernjca la Vieja, e en Santa Fimja de Vermeo. (Pag. 19)

(3) DE LOS LINAJES DE LAS VILLAS DE BERMEO E DE VILUAO, E DONDE SUCEDIERON. En la Villa de Vermeo antiguamente ovo dos linajes, conujene a sauer: el vno los de Asoaga, e el otro los de Apioca, e contrarios por qual valerian mas, e partian la justicia por medio, e andando el tiempo, el linaje de Asoaga ftose tres partes por que multiplicaron, e no comprendo en vno, fesieronse tres linajes enlre parientes, que son Almendurua.e Arielca, e Arostegi, e por esta partida, los de Apioca, con privanca del Señor, ganaron priuilejos de la media justicia. (Pag. 81)

(4) El Linaje de Madariaga fue su fundamento acerca de Mugica en un solar que llaman Madariaga, e de alli fueron a poblar en Busturia, e del primero que ay memoria que mas valio, fue Ramjro de Madariaga, que valio mucho con el Señor de Viscaya, porque fue esforzado ome, e gano Monesterios, e tierras del, e morio en el tiempo del Rey don Pedro de Aragon sobre Monbriedo, e dexo porfijo a Ramjro de Madariaga, que eredo todo lo suyo. e este dexo por fijo a Ramjro, tercero deste nombre, que caso en Vermeo con fija de Martin Garcia de Arilca, e dexo fijo a Ramjro quarto. (Pag. 79)

Juan izan zan eta au Bermeo'ko Patroi zan Juan Santxes'en alabeagaz ezkondu zan. (80n. orrialdean)⁵

Gartzia de Ariltza

Abendaño'tarren kondairak diño Furtund Gartzia de Abendaño, bere izeneko aitaren semeak, aitaren etorpidea Arteaga'n artu ebala eta berau izan zan Arteaga etxeko lenengo biztalea eta torrea ta jauretxeak egin ebazan an eta beragan batu ebazan ango errentak eta jauntxuak eta Don Pedro Erregeak Errege-Urian il ebanean, etorpidedun txiki bat itzi eban Martin Roys de Arteaga eta au Bermeo'ko Martin Gartzia de Ailtza'ren alabeagaz eskondu zan, eta uri aretan nagusi izan zan. (91n. orrialdean). e

Ariltza

Bermeo'n, Ariltza'n eskondu zan beste bat, Zamudioko Ordoño'ren semeagaz. (95n. orrialdean)⁷

Bermeo'ra zin-egitera

1.390n. urtean Bizkai'guztiko Anaidiak Bizkaiko Korrejidore zan Gonzalo Moro jakitunagaz aurka jagi ziran, Enrike III erregearen aginduz eta alde eta anaidi au sendoa izan zan artean Bizkaia, Enkarterria, Uriak eta lur laua eta ez eben ordaindu bai erregeak eskatzen ebana Gernika'ra ta Bermeo'ra zin egitera etorri arte, aurreko erregeak etorri ziran lez. (183n. orrialdean)⁸

Mungia'ko lehenengo burrukaldia

1414n. urtean egin eben burrukaldia Mugia urian Gomes de Butron'dar Gozalo'k eta Abendaño'tar Juan'ek. Onelan izan zan burrukearen asierea: Gomes'tar Gonzalo'k etxe bat egin eban uri-ondoko Berikes'en, urritarrai eta ingurukoai burrukan ekiteko. Santxes de Billela'tar Juan'ek lurra emonda, Abendaño'tar Juan'ek beste etxe bat egin eban ondoan. Moro'tar Gozalo

(5)... *destos del que ay mas memoria fue Adan de Yarca, el Viejo, que fue vasallo del Señor de Viscaya e Preboste de la dicha Villa de Lequeitio, que ovo fijo Adan, que morio moco de vna ferida en pelea, que dexo fijo a Juan Garcia de Yarca, que ovo muger a la fija de Juan Sanches, Patron de Vermeo. (Pag. 80)*

(6) *Contado ha la ystoria de los de A vendaño, como a Furtund Garcia fue el primero que poble en el solar de Arteaga, e fiso la torre e Palacios de alli, e fue el primero que junto en el parientes e rentas e quando lo mato el Rey don Pedro en Villa Real, dexofijo pequeño erederro a Martin Roys de Arteaga, que caso con lafija de Martin Garcia de Arilca de Bermeo, e ovo la prebostad de aquella Villa con ella. (Pag. 91)*

(7) *E otrafija que caso en Vermeo en Arilca. (Pag. 95)*

(8) *En el año del Señor de UCCCXC (1390) años, se leuantarón las hermandades en toda Viscaya con el dotor Gonzalo Moro, Corregidor de Viscaya, por mandado e favor del Rey don Enrique tercero, e durando esta hermandad. leuantarónse Viscaya e la Encartacion, Villas e tierra llana, e vna ves no quisiendo pagar lor pedidos al Rey, fasta que les vinjese faser juramento a Guernica, e a Vermeo, segund los Reyes pasados. (Pag. 183)*

biterteko dala bakeak egin ebezan bakoitza bere etxera joatekotan eta izkilludun gizonik ekarri barik. Biak egin ebezan euren etxeak, baiña amaitu orduko Abendaño'tar Juan larogei gizonegaz etorri zan bake-etxuraz Gernika'ra, Arteaga'ra ta Bermeo'ra, bere gorputz gazte ta bizkorra arro agertzen ebalá, eta Bermeo'n egozala Santxes de Billela'ko Juan'ek eta bere senideak eztabaidea sortu eben Abendaño'tar Juan'eri Mungia'tik etorteko dei egin outsoen... (192n. orrialdean)⁹

Arreskurenaga

1.427n. jaunaren urtean Bermeo Urian asarrea izan zan Santxes de Olabarrieta Fortud'en eta Ortis de Arreskurenaga'ren artean, nor almentuagoa izan zeitekean laguntzak emotean... Euren artean gizon bat il eben eta Bizkai'ko Korrejidorea joan zan ara eta buruan zauritu eben... (198n. orrialdean) 10

Abendaño ta Arteaga Bermeo'ra

Aldiberatan(1.446n. urtean), Abendaño'tar Pedro ta Roys de Arteaga'tar Martin, euren senide guztiakaz, Bermeo urira sartu ziran, Arostegi leiñargikoak euren alde zirala, eta Almenduru, Apioza eta Ariltza'tarrakaz burrukea izan eben, oneik Butron'darrak ziran. Amabi egunetan alde bietatik amabi gizon il ziran eta zaurituak asko. Iruugarren eguna igarota, Gomes Gozalez de Butron etorri zan bere senide guztiakaz uri onetara, eta au ate batetik sartu zan lez, Eupeme Deunaren atetik urten eben Abendaño'tar Pedro'k eta Roys de Arteaga'tar Martin'ek, eta arin urten eben lez euretariko batzuk itxasoan sartu ziran eta Gernika'ra joan eta jabe egin ziran eta Gomes Gozalez'ek Eupeme Deunak espetxean euki ebazan Roys de Arostegi'tar

(9) *En el año del Señor de UCCCCXIII (1414) años, pelearon ante la Villa de Mugia, Gonzalo Gomes de Butron e Juan de Auendaño, e la causa de esta pelea fue en esta manera. Este Gonzalo Gomes, sintiendose mucho de estos de Villela, por que con favor de los de Abendaño le fasian mucha guerra, como a faser vna casa de madera en vna casa llana que el tenja en Veiques, junto con la villa, a tiro de Ballesta, por della dar guerra contina a los de la Villa e de su comarca. Juan Sanchez de Villela dio eredad a par della a Jaun de Abendaño que fuziese otra casa, e comencadas, Gonzalo Gomes ayunto gentes para leuantar la casa, e Juan de Abendaño queria leuantarse a fazer la suya, e entrevenjieron entre ellos el dotor Gonzalo Moro, e Juan Alonso de Mugica, e Ochoa de Salasar, e trataron treguas, que se fuesen los dichos Gonzalo Gomes e Juan de Avendaño tambien, pero enantes que la cerrasen vino Juan de Avendaño con LXXXomes en manera de tregua a Gernjca, e Arteaga, e a Vermeo, como era mancebo e ligero de cuerpo, e estando en Vermeo Juan Sanches de Villela e sus parientes por poner discordia entre ellos enviaron por Juan de Avendaño que vinjiese por Mugia, (Pag. 192)*

(10) *En elaño del Señor de UCCCCXXVIII(1427) años, ovo discordia en la Villa de Vermeo entre FurtudSanches de Olavarrieta e Juan Ortis de Arrescurenaga, seyendo vu linaje e parientes, sobre qual valiera mas alponer de los oficios, e Juan de Ortis fuese a Butron, e Funtund JuN Arteaga, e ovo omecida entre ellos, e fue alli Juan Martines de Burgos que era Corregidor de Vizcaya, e andando entre ellos, ferieronlo en la caueca de encima de la torre de Rescurrenaga... (Pag. 198)*

Pedro, bere semerik zarrena eta bere leiñuko beste asko. (21 In. orrialdean)

11

Arostegi'tarrak iltzaille

1.460n. jaunaren urtean Bermeo-barrutik portu nagusiera bitartean Arostegi'tarrak gezi bategaz Otxotetxea il eben. Goems eta Gonzales de Butron'en ezkontzatic kanpoko zemea zan au, eta Gozales'tar Juan onen anaJa¹¹ta beste eurentariko batzuk zauritu ebezan. (217n. orrialdean)¹²

Peres eta Espenser'tar Juan

Izkilluz edo itota berrogei ta bost gizon il ziran euren artean Bermeo'ko Peres eta Espenser'tar Juan. (221n. orrialdean)¹³

Eriotzak eta etxeak erretea

Aldi eta urte beratan, orrilllean, Gomes Sarmiento'tar Diego Kondea sartu zan saridun zaldunakaz eta Abendaño'tar Pedro eta onen senideak andik ekarritakaokaz Otxadio'tik Durango'ra, Bizkai'ko Ganboa'tar guztien aurka eta kalte aundiak egin ebezan Zaldibar'en lapurretan eta etxeak erreten. Orixe egin eben Gernika'n be Bermeo'ko uri-ondora eldu arte eta gizon batzuk il ziran eta etxe asko erre. Zaldibar'tarrak euren etxea erre egin eben arerioak artu ez egien eta Ermu'n eta Eibar'en batu ziran, eta musika'tarrak Bermeo'ra joan ziran eta Musika'tarren eta senideen etxeak erre ebezan balioko zinarak, Gernika-inguruan, Mundaka'ra arte eta oiñaztarrak ez ziran ausartu eurakaz burukea egitera, oiñez eta zaldiz indartsu etozela jakin ebelako(224n. orrialdean)¹⁴

(11) En este mesmo tiempo entraron Pedro de Avendaño, e Martin Roys de Arteaga. con todos sus parientes en la Villa de Vermeo, que estauan por ellos los del linaje de Arostegui, e pelearon con los de Almenduru e de Apioca, e de Arialca, que tenjan la parte de Butron, e tenjan la villa por medio, en dos dias, e entres mucho reciamente. e morieron dose omes de anbas partes, e ovo muchos feridos, e a cauo de tres dias entro Gomes Gonzales de Butron con todos sus parientes en la dicha Villa de Guernjca apoderaronse della, e tomo Gomes Gonzales presos en Santa Fimja a Pedro de Roys de Arostegui, e a su fijo mayor, e otros muchos de su linaje. (Pag. 211)

(12) DE COMO MATARONLOS DE AROSTEGUI EN VERMEO A OCHOTECHE. FIJO DE GOMES GONZALES DE BUTRON. En el año del Señor de UCCCCLX (1460) años. mataron los de Arostegui, de encima de la cerca de Vermeo al puerto mayor, con vna saeta, a Ochotechea, fijo vastardo de Gomes Gonzales de Butron, e firieron a Juan Gonzales, su hermoso, e a otros de los suyos. (Pag. 217)

(13)... fueron XLV omes muertos, de armas, e ahogados e ahogaronse de Butron e de Mugica Gonzalo de Gecho e Juan de Sant Juan, fijo de Gozalo de Butron e Ochoa de Vicueta de Yyarcá, e Juan Peres Espenser de Vermeo, e Ramiro de Madariaga... (Pag. 221)

(14) En este mesmo tiempo e año omesmo, en el mes de Mayo, entro el Conde Diego Gomes de Sarmjento, con gente de cauallo a sueldo, e llamada de Pedro de Avendaño e de sus parientes, por Ochandiano a Durango, e contra todos los Gamboynos de Viscaya, e fisieorn mucho daño en tierra de Caldiuar, quemando e Robando. E asi lo fisieron en tierra de Gernjca, fasta el arraual de Vermeo, e morieron algunos onbres, e quemaronse muchas casas. E los de Caldiuar quemaron su casa por que no la tomasen los enemigos e Recogieronse a las Villas de Ermua, e de Ybar, e los de Muxica a Vermeo, e quemaron las casas de Muxica e de sus parientes. que algo valian. en torno de Gernjca fasta Mondaca, e los onesines no se atreujeron a pelear con ellos, por que sopieron que venjian forcosos a cauallo e a pie. (Pags. 223-224).

Itxasoz Bermeo'ra

Gonzalez eta De la Marca'tar Juan eta Otxoa'tar Martin au, bere lengusua eta Marca'tar guztiok Castro'ko uriaren erdian egozan eta ez ziran sartu ez urten egiten itxasoz izan ezik eta Otxoa'tar Martin au Alonso de Butron'dar Mari Andreagana joan zan laguntza-billa, Marca'tar Juan Gozalez au be Belasko'tar Juan'egaz bizi zalako eta Santullan'go Ontañes'egaz talde bat zirazalako eta Gonzales Gomez Errege-Etxean bizi zan ezkerero bere etxeko ogei ta amar gizon emon eutsozan, baita Bermeo'ko bere senide batzuk be, eta beragaz batera itxasoz etorri ziran eta oneikaz eta urikoakaz esandako bidean izan eben burruka-aldia Marroquin'darrak San Nikolas'en geldi egozala eta euren artetik an il ziran Coria Juan eta Larrea'ko Lekaide-Burua eta beste bi eta asko izan ziran zaurituak eta izkullu batzuk itzi ebezan eta Bermeo'koen artetik Gera il zan Otxoa'tar Martin'egaz eta Meaurio'tar Juan ariñeko lantzakada bategaz eta beste batzuk zauritu. (309n. orrialdean).¹⁵

Ondorenak

Pizka bat gogaikarri izan dira bear ba'da, aitamene oneik. Olakoxea da izan be, LAS BIENANDANZAS E FORTUNAS osoa, XX'tik XXV'erako ale[^] oneik beintzat. Baiña giro baragarri orretan, erdi-aroko gizartearen jokoan Bermeo'k bezer-ikusia izan ebala argitzeko egokiak direla uste dot. Dana dala, or agertzen diran sendien izakerea ta kondairea argitzea eta baso-zabal orretatik zuzatzen banaka ateratzea, Erdi-Aroko arazoak aztertzen dabezan kondairalariei itzi bearko dautsegu. Ba-dago or zer argitu.

Beste alde batetik, Erdi-Aroko giroa zelakoa zan, burruka-giroa, gaur lez baiña arazoak beste batzuk dirala, ulertzeko, ondo legokigu argitze ori.

Olazar'tar Martin'ek

(15) ... e estando varreados Juan Gonzales de la Marca, e este Martjn de no saliendo nj entrando si no por la mar. fue este Martjn Ochoa a la Señora Maria Alonso de Butron, demandar ayuda, ca este Juan Gonzales de la Marca tambien viuja con Juan de Velasco, e eran una conpañia con los de Otañes de Santullan, e por que Gonzalo Gomes era'en Corte diole ella XXX omes de los manceuos del Solar, e algunos de Vermeo, sus parientes, que con el venjeron por la mar, e con estos, e con los de la villa, pelearon alli en la dicha Calcada, estando marroquines aposentados en Saint Nicolas, e fueron vencidos los marroquines, e morieron dellos alli Juan de Coria, e el Abad de Larrea, e otros dos, e fueron muchos feridos, e dexaron algunas armas, e morio de los de Vermeo, Gera, con Martjn de Ochoa, Juan de Meaurio, de una lancada supitamente, e otros feridos. (Pag. 309).